



**MATRICI**

## KUDEAKETA SISTEMA OROKORRAREN POLITIKA

MATRICI S.Coop. 1964an kooperatiba gisa sortu zenetik, trokelgintzaren sektorean munduko enpresa nagusienetako bat izatera iritsi da, autogintzarako karrozeriako kanpo eta barruko osagaiak egiteko tresnak fabrikatzeko, ingeniartzatik hasita, trokelen disenu, egintza zein egokitze lanetaraino; Horrez gain, MATRICI sektore aeroespazialerako tresnen diseinuan, ekoizpenean eta hotzeko konformazio bidezko metalezko osagaien ekoizpenean ere garatzen ditu jarduerak MITen.

MATRICIren kudeaketa sistema integratuaren esparrua kudeaketa-eskuliburuetan dokumentatuta dago eta erakundearen, bere jardueraren eta dagozkion alderdien testuinguruan kokatzen da.

Enpresaren Xedea, Ikuspegi eta Balioekin bat eginez, Enpresaren Zuzendaritzak konpromiso hauek ezartzen ditu:

- Gure esfortzurik handiena jartzea gure **bezeroen eskakizunak** betetzeko, baita **beste interesdunen behar eta itxaropenak** asetzeko ere, gogobetetze orokor hobea lortzeko.
- Gure jarduerari **aplikatzekoa den legedia eta araudia** betetzen dela bermatzea, eta funtsean, Kalitatearekin, Ingurumenarekin, Laneko Segurtasun eta Osasunarekin eta Informazioaren Segurtasunarekin lotutakoak, bai eta beste edozein kontratu-eskakizun ere.
- Erakundeko kide guztientzat eta lantokian sarbidea dutenentzat, **lan-ingurune seguru eta osasuntsu bat** sustatzea, arriskuak ezabatuz eta laneko arriskuak murriztuz, norbere burua zaintzeko jokabideak, elkarrekiko arreta eta errespetua sustatuz; lanarekin lotutako lesioen, ondoezen, gaixotasunen eta gertakarien prebentzioa bermatzeko.
- **Ingurugiroaren babesa eta kontserbazioa** sustatzea, kutsadura prebenitu eta murriztearen bidez, ingurumen-konpromisoak betez eta gure jarduerarekin lotutako ingurumen-alderdi eta inpaktuen kudeaketaren bidez.
- **Informazioaren Segurtasunaren kudeaketa egokia** bermatzea, elementu tekniko, giza, material eta antolakuntzako elementuez osatutako prozesu integral gisa ulertuz, mehatxuak gauzatzeko aukera murrizteko eta gerta daitezkeen segurtasun-gertaerak detektatu eta tratatu daitezkeen segurtasun-neurriak artikulatuz denboran eta tratatzen den informazioari edo ematen diren zerbitzuei larriki eragin ez diezailetela, hura berreskuratzea ahalbidetuz.
- Kalitatearekin, Ingurumenarekin, Laneko Segurtasun eta Osasunarekin eta Informazioaren Segurtasunarekin lotutako **arriskuak minimizatzen dituzten tresnak, lan sistemak eta baliabideak ezartzea.**
- Prozesatzen eta gordetzen den informazio guztiaren **konfidentzialtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna zaintzea**, baita negozio-prozesuei eusten dieten informazio aktiboak ere.
- **Eragin negatiboak gutxitzea eta energiaren erabilera kontrolatzea**, etengabeko ahalegina eginez gure jarduera eta instalazioetatik eratorritako energia-inpaktua identifikatu, karakterizatu eta gutxitzeko eta energia-baliabideen erabilera eraginkorra bilatuz, gure errendimendu energetikoa hobetzeko helburuarekin.
- Gure langileak eta langile kontratatatuak **sentsibilizatu eta hezi** enpresaren helburu eta helmugak betetzeko kudeaketa sistema integratuari dagokionez. Zuzendaritzak ezartzen du Erakundeko langile guztiek politika hori bete behar dutela eta zehaztutako prozedurak eta/edo lan-jarraibideak betetzen direla ezagutu eta onartu behar duela.
- Kudeaketa sistema integratuaren hobekuntza-gai guztietan (Laneko Segurtasuna eta Osasuna, Prozesu eta produktuen kalitatea, Ingurumena, Informazioaren Segurtasuna, etab.) enpresako langile guztien parte-hartzea **kontsultatu, informatu eta bermatu.**
- **Prozesuen zuzentasuna** mantentzea; eta legez kanpoko jarduerak, ustelkeria eta eroskeria prebenitzea, betetze-kode etikoa betez
- Erakundearen **etengabeko hobekuntza** sustatzea, Kudeaketa Sistema Integratuaren errendimendua optimizatu eta bultzatzen, bere elementuak beste sistemekin integratzea bermatuz.
- **Kultura Justu, anitz eta inklusibo bat sustatzea eta gure erakundearen Giza Faktoreen hedapenaren** heldutasun maila etengabe hobetzea, aukera berdintasuna eta aniztasunaren errespetua bultzatuz; **generoa, etnia, adina, sexu-orientazioa, ezintasuna eta jatorri sozioekonomikoa** kontuan izanda baina muga bat izan daiten ekidituz.
- **Aktiboki lankidetzan** jardutea dagozkien agintariekin, gobernuz eta gobernuz kanpoko erakundeekin, baita beste alderdi interesdunekin ere, gure komunitateetan eta industrian **orokorrean haurren eta behartutako lana** desagerraraztea sustatzea.
- Aldian-aldian ezartzea **helburu eta helmuga dokumentatu** eta kuantifikagarriak, kudeaketa sistema integratuaren jarduera garatzeko, eta gure aurrerapena kontrolatzeko.

Politika honetan hartutako konpromisoak erakundearen urteko helburuetara gehituko dira, horiek lortzeko helmuga barne eta hilerok betetzen direla berrikusita. Helmuga lortzen denean, erakundeak helburu berriak eta zorrotzagoak zehaztuko ditu. Erakundeak langile kualifikatuak, teknologia propioa eta antolakuntza-egitura egokia ditu konpromiso horiek betetzeko.

Politika hau langileei jakinaraziko zaie eta erakundeko interesdun guztien eskura egongo da.

**Zamudio, 2024ko urtarrila**

**Imanol Saitua, Virginia Toña, Raúl Pera**  
Zuzendaritza orokorra

22